

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Alkate-lehendakariak ebatzi beharreko eskumen eskuordetzeak

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, toki erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onartzen duenak, 43. eta 44. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, Amurrioko Udaleko alkate-lehendakariak ebatzitako eskumen eskuordetzeak argitaratzen dira.

2016ko uztailaren 4ko 16/174S Dekretuaren bidez, honako eskumen eskuordetze hau egiten da: 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.c) artikuluan 21.3 artikuluari lotuta ematen dizkidan ahalmenez baliaturik, Juan Cruz Apodaca Sojo zinegotziaren esku uzten da, idatziz, administrazio batzar, ingurumen, nekazaritza, abeltzaintza eta mendietako informazio batzordearen burutza.

2016ko uztailaren 18ko 16/185S Dekretuaren bidez, honako eskumen eskuordetze hau egiten da: 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.b) artikuluan 21.3 artikuluari lotuta ezarritakoa oinarri hartuta, bai eta Toki erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Arautegiak 41.1., 43.1. eta 44. artikuluetan ezarritakoa ere, Iñaki Ibarluzea Ortueta zinegotziari eskuordetzen zaizkio alkatearen ahalmenak, 14/2016 espedienteko ezkontza zibila baimendu dezan.

2016ko irailaren 6ko 16/267S Dekretuaren bidez, honako eskumen eskuordetze hau egiten da: 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.b) artikuluan 21.3 artikuluari lotuta ezarritakoa oinarri hartuta, bai eta Toki erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Arautegiak 41.1., 43.1. eta 44. artikuluetan ezarritakoa ere, Garazi Dorronsoro Garate zinegotziari eskuordetzen zaizkio alkatearen ahalmenak, 4/2016 espedienteko ezkontza zibila baimendu dezan.

2016ko irailaren 6ko 16/268S Dekretuaren bidez, honako eskumen eskuordetze hau egiten da: 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.b) artikuluan 21.3 artikuluari lotuta ezarritakoa oinarri hartuta, bai eta Toki erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Arautegiak 41.1., 43.1. eta 44. artikuluetan ezarritakoa ere, Miren Saratxaga de Isla zinegotziari eskuordetzen zaizkio alkatearen ahalmenak, 25/2016 espedienteko ezkontza zibila baimendu dezan.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Amurrio, 2016ko irailaren 15a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA